

Ikasketa- eremuak eta narratibak



Ikaskuntza Testuinguru Berriak (ITB) hiru zutabe ditu: neurozientziak garunaren funtzionamenduaz egin dituen aurkikuntza berriak, egungo gizartearen ezaugarriak eta La Sallek hezkuntzaren esparruan duen eskarmentu handia.

Eskolan, harrerak, mintegiak, tailerrak, proiektuak eta itxierak erabiltzen ditugu, eskolako eguneroko jarduna antolatu eta hiru zutabe horiek garatzen laguntzeko. Horrela, eremu egokiena aukeratu dezakegu jakintza-mota bakoitzarentzat: jakitea, egiten jakitea eta izaten jakitea.

Narratibek, bestalde, ikasgela, jarduna, denbora eta curriculumeko edukiak antolatzen dituzte, ikaskuntza integrala eta integratua errazteko.

Narratibek gure mundua bezala funtzionatzen dute. Gai bakarreko irakasgaien ikuspegi zurruna gainditu eta diziplina anitzeko eta elkarri konektatutako markoak erabili behar dira bizi garen mundu globalean, gure historiaren eta orainaren gakoak ulertu eta etorkizuna marrazteko.

Nola dabil mundua?



Bizi ezazu!

Ikaskuntza Testuinguru Berria (ITB) konpetentzia eta esperientzia bidezko ikaskuntza, zeharkako ikaskuntza, eta ikaskuntza instrumentala, soziala eta adaptatiboa oinarritzat dituen erreferentzia-markoa da, La Salleren hezkuntza-obra bakoitzaren testuingurura moldatuta dagoena.



lasalleikastetxeak.org



Hezkuntza eraldatuz, mundua eraldatzen dugu.

**ITB ikasketa-eremuak
eta narratibak
Bigarren Hezkuntza - DBH 3**



Narratibak

Nola dabil mundua?


Gure ikasleek hainbat pertsonaia garrantzitsuri erreparatu diete, eta eredu gisa erabili dituzte nolakoak izan nahi duten pentsatzeko.

Beren izateaz kontzientzia hartu ondoren, zer mundutan eta gizartetan bizi diren ohartzen hasi dira.

Ikasturte honetan, bizi diren mundua hobeto ulertze aldera, haren gako batzuk aztertuko dituzte: informazio edo desinformazioaren kultura, ikus-entzunezkoak, ongizatea, mugikortasuna, mundu interkonektatua, hiria...

Eta gako horien aurrean jarrera bat hartuko dute, ausardiaz eta sormenez betetako erantzunak emanez.

What a fake!



Arloz arlo ikusiko dugu *fake* kontzeptuak kultura eta balio sendoak sortzen dituela gure gizartean. Zer du mitotik edo *fake*-tik jakintza-arlo bakoitzak? Halakoak bereizteko tresnak ikasiko ditugu.

Globaliza zaitez



Gure mundu globalizatu honetan pertsonen eta salgaien mugikortasuna zein garrantzitsua den ikusiko dugu. Narratiba honetan globo bat eraikiko dugu, eta airera botako dugu amaieran, mugikortasunak dakarren globalizazioaren metafora gisa.

Oilara



Zinematik, publizitatetik, musikatik eta beste hainbat arlotatik kultura sozial berri bat sortzen eta aberasten duten balioak proposatzen direla ikusiko dugu. Ikus-entzunezko materialak sortzeko tailer bat egingo dugu, eta gure sormen-lanak film laburren jaialdi batean erakutsiko ditugu.

Crash 112




Trafiko-istripu bat aztertuko dugu hainbat jakintza-arlotatik: zientifikoa, sanitarioa, emozionala, ekonomikoa, geografikoa, juridikoa, komunikatiboa... Haien artean zer lotura dituzten ikusiko dugu, eta horrek zer dakarren aztertuko. Epaiketa bat egingo dugu eta epaiketako peritua izango dira ikasleak.

Ongizatea



Ongizatea gure kulturaren oinarritzat aurkeztuko dugu, ikuspegi biologikotik ez ezik, ikuspegi psikologikotik eta sozialetik ere bai. Zoriontsu izateko plan pertsonal bat prestatuko dugu, eta praktikan jarriko dugu ikasgelan.

HiriApp



Hiri-eremu landa-eremuari gailentzen zaiola ikusiko dugu, eta gure gizartearen bereizgarri den alderdi horrek bizimodu jakin bat dakarrela jabetuko gara. Bi eredu onak eta txarrak aztertuko ditugu, hobetzeko proposamenak egiteko. Azkenik, ikasitako guztiarekin, mugikorrerako aplikazio erabilgarri bat prestatuko dugu.